



Txikizkako komertzioen ziurtapenerako GIDA

Amorebieta-Etxanon, 2015eko urtarrilean.

ENEK, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Jauregiatarria auzoa 4, 48340 Amorebieta Etxano

T 946271594 F 946467369 E info@eneek.org W www.eneek.org

1 SARRERA

1.1 Nori zuzenduta dago Gida?

Honako gida produktu ekologikoak zuzenean azken erosleari saltzen dizkieten merkatariei zuzenduta dago; salmenta hori honako bideak erabilia egin daiteke:

- Publikoari, elikadura eta dietetikako dendetan, azoketan, supermerkatuetan, etab.
- Urrutiko salmenta, Internet bidez, etab.
- Salmenta automatikoa, makina automatikoen bitartez.

Jarduera motaren arabera, EAEko txikizkako komertzio batzuk Euskadiko eragile ekologikoen Erregistroan inskribatu behar dira, baldin eta ekologiko, biologiko eta organiko terminoak, edo EKO edo BIO laburdurak erabili nahi badituzte etiketan, publizitatean edo produktu horiekin batera doazen besteko agiri komertzialetan. Ondoren aurkezten dizkizuegun tauletan, kontrola eta egiaztapena behar duten zein horrelakorik behar ez duten jarduerak adierazten dira:

| HONAKO HAUEK ENEKEn INSKRIBATUTA EGON BEHAR DIRA: | |
|---|---|
| SALMENTA ZATIKATUA | Azken kontsumitzailearen aurrean zuzenean, irekita dagoen ontzitik zatikatzen diren produktu ekologikoen merkaturatzea; produktuok ez dute inolako eraldaketarik ¹ jasaten, zuzenean saltzen dira haien jatorrizko ontzitik. |
| PRESTATZEA, ONTZIRATZEA ETA/EDO ETIKETATZEA | Produktu ekologikoak prestatzea, ontziratzea eta/edo etiketatzea, txikizkako komertzioan saltzeko, nahiz eta jarduera horiek hirugarrenei kontratatu. |
| ONTZIRATU ETA ETIKETATU GABEKO PRODUKTUEN URRUTIKO SALMENTA | Kontsumitzailearen etxera edo produktuak batzeko gune batera bidaltzera bideratutako produktu ekologikoen urrutiko salmenta, eskabideen bitartez egiten dena; salbuetsita daude azken kontsumitzailearentzako ontziratutako eta etiketatutako produktuak bakarrik, ondoren inolako manipulaziorik, prestaketarik edo zatikatzerik jasango ez dutenak. |
| ONTZIRATU ETA ETIKETATU GABEKO PRODUKTUEN SALMENTA AUTOMATIKOA | Makina automatikoetako produktu ekologikoen salmenta; salbuetsita daude azken kontsumitzailearentzako ontziratutako eta etiketatutako produktuak bakarrik, ondoren inolako manipulaziorik, prestaketarik edo zatikatzerik jasango ez dutenak. |
| HIRUGARREN HERRIALDEETATIK INPORTATUTAKOAK | Beste herrialde batzuetatik egiten den produktu ekologikoen inportazioa, ondoren establezimenduetan, urrutira edo makina automatikoetan saltzeko, nahiz eta jarduera hori hirugarrenei azpikontratatu. |

(1) Harategien kasuan, ez da eraldaketatzat jotzen haragia zatikatzea eta hezurgabetzea.

(*) **“Produktu ekologiko”** terminoak barne hartzen ditu **“produktu ekologikoa”** eta **“nekazaritza ekologikorako bilakaeran dagoen produktua”** kualifikazioak. **“Produktu konbentzional”** terminoa erabiltzen da adierazteko produktua ez dela ekologikoa.

| TXIKIZKAKO KOMERTZIOEN KONTROLETIK SALBUETSITA DAUDE: | |
|--|--|
| KONTSUMITZAILEARI ONTZIRATUTA ETA ETIKETATUTA DAUDEN PRODUKTUAK SALTZEA | Zuzenean, urrutira edo modu automatikoan saltzea azken kontsumitzaileari, dagoeneko ontziratuta eta etiketatuta dauden produktu ekologikoak, ondoren inolako elaboraziorik, manipulaziorik edo zatikatzerik jasaten ez dutenak. Hemen sartzen dira zuzenean estalkia kendu gabe zatikatzen diren produktuak, gaztak eta hestebeteak bezalakoak. Betiere eko aipamena duen etiketa estalkiaren parte den bitartean eta kontsumitzailearen bistan bada. |
| EKOIZLE ETA ELABORATZAILE ESCLUSIBOEN EUREN EKOIZPENA KONTSUMITZAILEARI SALTZEA | Azken kontsumitzaileari euren produktu propioak saltzen dizkieten produktu ekologikoen ekoizleak eta/edo elaboratzaileak, hirugarrenen produkturik merkaturatzen ez dutenak; dagoeneko ontziratuta eta etiketatuta dauden, eta ondoren inolako prestaketarik, manipulaziorik edo zatikatzerik jasaten ez duten produktuak izan ezik. Eragile horiek haien jardueraren berri eman behar diote kontrol erakundeari. |
| KONTSUMOKO KOOPERATIBAK ETA ELKARTEAK | Legez eraturta dauden kooperatibak eta elkarteak, produktu ekologikoak erosi eta soilik haien bazkideen artean banatzen dituztenak. |

1.2 Nork egiaztatzen ditu jarduerok, eta zein arauditan oinarrituta?

Aipamen babestu ekologikoak erabilia merkaturatzen diren produktu ekologikoek* Europako oinarritzko araudia betetzen dute, Batasuneko kide diren Estatu guztientzako bakarra dena. Baimendutako kontrol organismoak eta agintariak arduratzen dira araudi hori betetzen dela bermatzeaz. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) egiten du kontrola; ES-ECO-026-VAS da erakunde horren Europako baimen-kodea.

Egiaztatutako ekoizpenen eta/edo jardueren titularrak Euskadiko eragile ekologikoen Erregistroan daude.

ENEK Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluaren akronimoa da. Euskadin Nekazaritza Ekologikoa arautzen duen Eusko Legebiltzarraren 10/2006 Legearen arabera, ENEK zuzenbide pribatuaren arabera eraentzen den korporazio publikoa da. Korporazio horren helburu orokorrak dira nekazaritzako ekoizpena eta elikadura ekologikoa jendarteratzea eta sustatzea, eta aipamen babestu ekologikoekin etiketatutako produktuak kontrolatzea eta egiaztatzea. Gainera, Kontseilua Euskadiko nekazaritzako produktu ekologikoen ekoizleen, elaboratzaileen eta merkaturatzaileen sektoreen ordezkaria da. Gobernu organoa 12 kidek osatzen dute; sektoreak berak aukeratzen ditu kideok sektoreko kideen artean; kide horietako batek ENEK kontseiluaren ordezkari gisa jarduten du, eta bera da Kontseiluko Lehendakaria.

1.3 Zergatik da beharrezkoa egiaztatpena?

ENEK, txikizkako komertzioen ziurtapenerako gida

Egiaztapena **berme sistema** bat da: horri esker, erakunde edo organismo inpartzial batek bermatzen du produktu, ekoizpen edo zerbitzu batek araudi publiko eta komun batean ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen dituela. Azken batean, aukera ematen du produktu bat merkaturatzeko, erosleak ekoizteko modu batekin eta produktuaren ezaugarri jakin batzuekin lotzen dituen babestutako aipamen eta irudi batzuk erabilia edo aipatuta. Sistema hori beharrezkoa da, aipamen babestuek merkatuan haien balioari eusten diotela bermatzeko, eta sektorean lehia desleiala saihesteko. Sistema hori publikoa da Euskadin, ENEK kontseiluak kudeatzean du, administrazioak babesten du, eta irabazi asmorik gabeko zerbitzu publikoa izateko sena du.

Azken kontsumitzailearentzako ontziratuta eta etiketatuta dauden produktu ekologikoen kasuan, egiaztapen kontrola amaituko da produktua ontziratuta eta etiketatuta duen enpresan. Ontzia itxita baldin bada, eta ziurtapen ekologikoari eta produktuaren trazabilitateari buruzko informazioa etiketan azaltzen bada, ez da beharrezkoa produktuok azken kontsumitzaileari saltzen dizkieten txikizkako komertzioen berriazko kontrola egitea.

Hala eta guztiz ere, txikizkako komertzio batzuek produktu ekologikoak zatikatuta saltzen dituzte (frutak, barazkiak, haragia, gazta, etab.). Salmenta zatikatuaren gaineko kontrolari eta egiaztapenari esker, irekitzeko manipulatu diren ontzietan saltzen diren produktu ekologikoen osotasuna bermatzen zaie bezeroei.

Badaude txikizkako beste komertzio batzuk (okindegiak, harategiak, izozki dendak, etab.) haien lantegietan eta ontziratze-geletan prestatzen, ontziratzen eta/edo etiketatzen dituztenak produktuak, gero produktu horiek beraien establezimenduetan salgai jartzeko. Kontrolaren eta egiaztapenaren bitartez, bezeroei bermatzen zaie erabilitako osagaiak ekologikoak direla, eta elaborazioan ez dela debekatutako gehigarririk eta genetikoki aldatutako organismorik erabili, horiek debekatu egiten baititu ekoizpen ekologikoari buruzko europar araudiak.

ENEK erakundearen ziurtapenak honakoa eskaintzen ditu:

- ✓ Produktuak kontsumitzaileak eta kateko gainerako aktoreek espero dutena betetzen duela, eta hori, sektoreak berak eta administrazioak babestutako erakunde batek abalaturik.
- ✓ Produktuaren merkaturatzean eta publizitatean produktu ekologikoarentzako aipamen eta irudi identifikatzaile babestuak erabiltzeko aukera.
- ✓ Euskadiko eragile ekologikoen erroldan inskribatzeko eta ENEK erakundearen sustapen eta publizitate jardueretan parte hartzeko aukera: webgunea, salmentako plataformak, salmentako material komunak, azoketan espazioa erostea, etab.
- ✓ Ziurtapen horrek balio du diru-laguntzak lortzeko aukera izateko, azoka ekologikoetan parte hartzeko eta beste hainbatetarako.
- ✓ Kontseiluaren gobernu organoan sektorea ordezkatzeko eta/edo ordezkariak hautatzeko aukera.
- ✓ Hobekuntzak antzemateko kanpoko teknikari baten diagnostikoa edukitzeko aukera.

2 ZIURTAPENAREN PROZESUA

Elikagai ekologikoak zatikatuta saltzeko, elaboratzeko, ontziratzeke, etiketatzeko, urrutira saltzeko, automatikoki saltzeko edo kanpoko herrialdeetatik inportatzeko, Euskadiko txikizkako komertzioek ENEEKEN eragile ekologikoen erregistroan inskribatzeko eskabidea egin behar dute.

2.1 ENEEKEN erregistratzearen eta ziurtapenaren kostua.

ENEEKEN erregistratutako eragile guztiek Kontseiluak berak ezarritako kuotak ordaindu behar dituzte. ENEEKEN webgunean kontsulta daitezke indarrean dauden kuotak. Horiei esker estaltzen dira, hein batean, kontrolerako eta egiaztapenerako zerbitzuaren gastuak, eta ENEEKEK nekazaritza eta elikadura ekologikoa sustatzeko eta ezagutarazteko egiten duen lanarenak.

2.2 Ziurtapenaren akordioa.

Ezinbesteko agiria da ziurtapenari dagozkion jarduerak egin ahal izateko; agiri hori eragileak eta ziurtapen-erakundeak sinatzen dute.

ENEEKEK UNE-EN ISO 17065:2012 Araua bete behar du nekazaritzako ekoizpen ekologikoaren adostasun-ziurtagiriak emateko. Arau horrek ezartzen du eragilearen eta ENEEKEN arteko akordio egikarigarria egon behar dela, mugagabea, eta akordio horretan ezarri behar direla eragilearen konpromisoak eta eskubideak, eta ziurtapen-erakundeak eragilearekiko dituen betebeharrak.

Hasierako bisitan, aurrerago deskribatzen den bezala, bi ale sinatzen dira, bata eragilearentzako eta bestea ENEEKentzako. Lehendabiziko orrialdea bete, eta orrialde guztiak sinatzen dira.

2.3 ENEEKEN ziurtapena eskuratzeko prozesua

Instalazioak eta horien jarduerak inskribatzeko, eragileak txikizkako komertzioa inskribatzeko edo handitzeko Eskabidea bete behar du – eskabide hori ENEEKEN webgunean aurkitzen da –, eta ENEEKEN bulegoan aurkeztu, edo posta ziurtatu bidez bidali, honako helbidera: Jauregibarria auzoa 4, 1. solairua, 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia). Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua aurreikusitako bideren bat erabilia ere aurkez daiteke.


Eragileak produktu ekologikoak elaboratzen edo manipulatu dituenean, eta/edo kanpoko herrialdeetatik inportatzen dituenean ere bete beharko du produktuak elaboratzeko, merkaturatzeko eta kanpoko herrialdeetatik inportatzeko enpresak inskribatzeko Eskabidea; hori ere ENEEKEN webgunean aurkitzen da.

Inskribatzeko eskabidea bidali ondoren, hurrengo urratsa izango da produktuak adierazpen babestuak erabilia merkaturatzea (ekologikoa, biologikoa, organikoa, EKO, BIO). Jarduera motaren arabera, dagozkion merkaturatze-eskabidea bete eta bidali behar da; eredu hori ere ENEEKEN webgunean dago eskuragarri.

| JARDUERA MOTAK | BAIMENA ESKATZEKO AGIRIA |
|---|---|
| SALMENTA, PRODUKTUA KONTSUMITZAILEAREN AURREAN ZATIKATUTA ONTZIRATU ETA ETIKETATU GABEKO PRODUKTUEN URRUTIKO SALMENTA ETA SALMENTA AUTOMATIKOA | Produktua merkaturatzeko eskabidea, produktuen banaketako, salmenta zatikatuko, automatikoko eta urrutiko salmentako jardueretarako. (NE-ZIUR-PZ- 01.12C) |
| PRODUKTUA ELABORATZEA, ONTZIRATZEA ETA/EDO ETIKETATZEA TXIKIZKAKO KOMERTZIOAN | Elaboratutako produktua merkaturatzeko eskabidea. (NE-ZIUR-PZ- 01.12B) |
| KANPOKO HERRIALDEETATIK INPORTATZEA | Herrialdearen arabera, Europar Batasuneko 1235/2008 Erregelamenduak adierazitakoari jarraiki. |

ENEKek baimendutako produktuak eragilearen ziurtagirian adieraziko dira.

Ondorengo urratsak jarraitzen dira, ENEK-en inskribatzeko eskabidea jasotzen denetik Adostasun-ziurtagiria eman arte:



2.3 ENEK-en ziurtaginari eusteko prozesua

Eragileek urtean behin eguneratu behar dituzte erregistroan haien datuak, eta ondoren adierazten den dokumentazioa bidali, urtarrilaren 31 baino lehen:

- Inskripzioa egin zenetik aldatu ahal izan diren eragilearen datu orokorrak eguneratzeko agiria.
- Jardueraren aitortzea; agiri horretan, azkeneko urtean egindako produktu ekologikoen salmentak adierazi behar ditu eragileak. ENEKek datu horiek erabiliko ditu babestutako produktuaren aurreko urteko salmentei dagokien kuota kalkulatzeko. Banku-helbideratze bidez ordaintzen da kuota.


Tramite horiek guztiak betetzeaz gain, eragileak urteroko bisita gainditu behar du ziurtagiria berritzeko.

2.4 Kontrolerako urteko bisita

Eragileek urtean kontrolerako bisita bat, gutxienez, jasotzen dute. Bisita horretan, ENEEKeko ikuskatzaileak egiaztatzen du eragileak ekoizpen ekologikoko arauen eskakizunak betetzen dituela.

Urteroko auditoretzaz gain, eragileek bisita gehigarria ere jaso dezakete, ENEEKek egindako arriskuaren ebaluazioaren emaitzen arabera. Aparteko ikuskapen bat ere jaso dezakete, araudiaren berariazko puntu batzuk edo aurreko bisitetan antzemandako hutsune batzuk zuzendu diren egiaztatzeko. Aldez aurretik abisatu gabe egin daitezke bisita horiek. Arriskuaren ebaluazioaren edo bisitaren emaitzaren arabera, produktu ekologikoen laginak har daitezke, ekoizpen ekologikoan baimenduta ez dauden sustantzien arrastorik ez dagoela egiaztatzeko.

Honela laburbil daiteke ziurtapenari eusteko urteroko prozesua:



3 ARAUDIAREN APLIKAZIOA

Urteko eta ausazko bisitak aldez aurretik jakinarazi egin daitezke, eta, egoki irizten bazaio, bisita horietan produktu ekologikoen laginak hartuko dira, ekoizpen ekologikoan baimenduta ez dauden sustantzien arrastorik ez dutela egiaztatzeko.

Eragileak ekoizpen ekologikoko araudia aplikatu behar du, eta, kontrolerako bisitetan, ikuskatzailearen esku jarri behar ditu araudia aplikatzen duelako ebidentzia objektiboak. Ebidentzia nagusienak dira produktu ekologikoen salerosketak justifikatzen dituzten erregistroak (eragileak eguneratuta izan behar ditu, eta ikuskapenean aurkeztu behar ditu) eta agiriak (ziurtagiriak, albaranak, fakturak, ordainagiriak, etab.).

Gainera, eragileak zatikatuta saltzen dituen, edo bere establezimenduan elaboratzen eta ontziratzen dituen produktu ekologikoen trazabilitateari eutsi behar dio.

3.1 Erregistroak

ENEKEN ziurtagena eskuratzeko, ondoren adierazten diren erregistroak mantendu behar dituzte eragileek:

- Produktu ekologikoen hornitzaileen erregistroa; eta, produktu ekologikoei eragiten dieten zerbitzuak azpikontratatu gero, azpi-kontratatu horien erregistroa;
- Produktu ekologikoen sarreren (erosketak), irteeren (salmentak) eta izakinen erregistroa;
- Produktu ekologikoak elaboratzen eta/edo ontziratzen baditu, elaborazioen eta/edo ontziratzeen erregistroak;
- Bezeroen erreklamazioen erregistroa;
- Garbiketen eta izurrien eta karraskarien kontrolen erregistroa.

Normalean, enpresek izaten dituzte era horretako erregistroak, beraz, ekoizpen ekologikoko araudiari egokitu beharra besterik ez dute izango. Erregistroak kudeaketako pakete informatiko baten barne egon daitezke, programa informatikoak erabilita bete daitezke (Excel, Word, etab.), edo eskuz bete daitezke, paperean.

Salmenta zatikatuaren kasuan, eragileak ez badauka uneoro produktu ekologikoen sarrerak, irteerak eta izakinak ezagutzea ahalbidetuko dion kudeaketa-programarik, gutxienez salmenta zatikatuaren asteroko erregistroa eraman beharko du.

3.2 Ziurtagen ekologikoen egiaztagena

Eragilearen ardura da salmenta zatikatura bideratuko diren, edo elaborazioan osagai gisa erabiliko diren eta ontziratuko diren produktu ekologikoak produktu ekologiko gisa ziurtatuta eta etiketatuta daudela egiaztagena. Egiaztagen hori bi alditan egiten da:

- 1) Eragileak produktu ekologikoen hornitzaileei indarrean duten adostasun-ziurtagenaren kopia bat; agiri hori kontrolerako organismoak sinatuta eta zigilatuta egon behar da. Ziurtagenaren ekologiko gisa ziurtatutako eta bilakaeran dauden produktuak jasotzen dira, bai eta kontrolerako organismoaren UE kodea. Informazio horrek eskabideak egiteko oinarritzat balio behar du.
- 2) Eskatutako produktuak jasotzen dituen, eragileak egiaztagen behar du produktuen albaranetan eta etiketan produktuaren kualifikazio ekologikoa edo bilakaerarena, eta kontrolerako organismoaren UE kodea agertzen direla.

Egiaztagen horien emaitza positiboa bada, produktua ekologiko edo bilakaeran dagoen produktu gisa erabil daiteke, dagokion kalifikazioaren arabera. Adostasun-ziurtagenaren, albaranaren edo etiketaren datuak nahikoa ez badira edo bat ez badatoz, produktua berrogeialdian jarri beharko da hornitzaileak beharrezko dokumentazio guztia osatzen duen arte. Hori ezinezkoa bada, produktua konbentzionalki soilik erabili ahal izango da.

Halaber, produktu ekologikoekin lotutako zerbitzu bat azpikontratatu aurretik, egiaztagen beharko da azpikontratatu jarraian azpikontratatuaren enpresaren adostasun-ziurtagenaren jasota dagoela.

Egiaztagen horien emaitzak esplizituki aipatu behar dira hornitzaileen, azpikontratatuaren enpresen eta sarreren erregistroetan.

3.3 Salmenta zatikatua

Produktuak establezimenduan zatikatuta saltzerakoan, haien jatorrizko ontzietan gorde behar dira produktu ekologikoak, eta jendaurrean kontserbatu behar da etiketa merkaturatze-prozesua amaitu arte. Hori ezinezkoa bada, eta produktua jatorrizko ontzitik ateratzen bada, merkataria

jendaurrean jarri beharko du jatorrizko etiketa, ontzia noiz ireki den adierazten duen zigiluz markatuta.

Zatikatuta saltzen den produktua haragia bada, zatikatuta ondoren pieza bakoitza identifikatzen duten errotuluetan kanal zenbakia adierazi beharko da, trazabilitatea bermatzeko helburuz.

3.4 Elaborazioa, ontziratzea eta etiketatzea

Ekoizpen ekologikoko araudiak elaboraziotzat jotzen du produktuak kontserbatzeko eta/edo eraldatzen edozein operazio, zein produktu ekologikoen ontziratzea eta etiketatzea. 889/2008 (CE) Erregelamenduan jasotzen da produktu ekologikoak elaboratzeko, ontziratzeke eta etiketatzeke araudia.

Establezimenduan eragileak berak elaboratutako produktu ekologikoak salgai jartzeko, alde aurretik, produktu elaboratuak merkaturatzeko Eskabidearen bitartez, horretarako baimena eskatu behar du eragileak, eta ENEEken dagokion baimena jaso.

Produktu horietan erabilitako etiketek, araudi orokorraz gain, produktu ekologikoak etiketateari buruzko araudia ere bete behar dute. Horregatik, merkaturatzeko Eskabidearekin batera, erabiliko den etiketa-eredua bidali beharko da, ENEEke aztertu eta onetsi dezan. ENEEken webgunean badaude produktu ekologikoetan jaso beharreko aipamenen eta logotipoen gaineko jarraibideak.

Eragileak kontuan hartu behar du, bestalde, elaborazioan erabiltzen dituen gainerako nekazaritzako elikagai osagarri guztiak ere (frijigailuetako olioia, moldeetatik ateratzeko olioia, etab.) ekologikoak izan behar direla. Gatza ez da nekazaritzako osagaia, eta araudiak ez du eskatzen produktu ekologiko gisa ziurtatuta egon behar denik, baina gehigarririk gabeko (aglomeratzaile aurkakoak, etab.) gatz bermatua erabili behar da.

3.5 Makina automatikoen bitartez egiten den salmenta (vending)

Makina saltzen den produktu motaren arabera, produktu ekologikoak soilik edo askotarikoak saldu ahal izango dira:

- Kafe eta edari beroak saltzeko makina automatikoen kasuan, produktu ekologikoak bakarrik saldu ahal izango dira. Makina automatikoan saltzen diren nekazaritzako osagai guztiak (kafea, tea, kakaoa, esnea, azukrea, etab.) ziurtatutako nekazaritza ekologikokoak izan behar dira.
- Azken kontsumitzailearentzako ontziratuta eta etiketatuta gabeko elikagaiak (fruta freskoa, etab.) saltzen dituzten makina automatikoetan ere produktu ekologikoak soilik saldu ahal izango dira.
- Azken kontsumitzailearentzako ontziratutako eta etiketatutako produktuak (*snack*-ak, etab.) saltzen dituzten makina automatikoak mistoak izan daitezke.

Soilik produktu ekologikoak saltzeko makinaren etiketa ekologikoa makinaren kanpoko gainazalean inprimatuta egongo da eta, eragileak hala eskatzen badu, baita makinak ematen dituen edalontzietan ere. Makina mistoetan, berriz, produktuen etiketa indibidualetan soilik agertu ahal izango dira nekazaritza ekologikoaren aipamenak.

3.6 Trazabilitatea

Trazabilitatearen definizioa honakoa da: identifikazio sistema baten bidez, ekoizpen, eraldaketa eta banaketako etapa guztietan zehar elikagai baten arrastoari jarraitzeko (trazatzeko) abildadea edo gaitasuna.

Merkatariak salgai jartzen dituen produktu ekologikoen trazabilitatea argi eta garbi mantentzea ahalbidetuko dion kudeaketa sistema bat eduki behar du, entregatzeko albaranetaraino eta hornitzaileen fakturetaraino.

ENEK, txikizkako komertzioen ziurtapenerako gida

Sarreren, irteeren, izakinen, elaborazioen eta ontziratzeen erregistroak trazabilitateari eutsi ahal izateko moduan diseinatu behar dira, erregistro guztietan produktu ekologikoen lote zenbakia idatzita.

Establezimenduak bertan elaboratzen eta/edo ontziratzen diren produktu ekologikoen kasuan ere lote zenbakia agertu behar da produktu horien etiketan edo errotulan.

Urrutiko salmentei dagokienez, eskabide osatzen duten produktuetako bakoitzaren lotea entregatzeko albaranean identifikatuta agertu behar da. Landare-produktuak ez badira hirugarrenenak, hots, norberaren ustategian bertan ekoiztutakoak baldin badira, produktuak bildu diren partzelari dagokion zenbakia edo kodea adierazi beharko da lote zenbaki gisara.

3.7 Ticketak eta entregatzeko albaranak

Nahitaezkoa da bezeroei erosketaren frogagiria ematea; merkataritzako establezimenduetan salmenta zuzeneko kaxako ticket bezala, edo entregatzeko albaran gisa urrutiko salmentarako. Agiri horretan, araudi orokorrean ezarritakoaz gain, ondorengo taulan adierazten den informazioa jaso behar da:

| FROGAGIRI MOTAK | EROSKETAREN FROGAGIRIAN AGERTU BEHAR DIREN DATUAK |
|---------------------------------------|--|
| KAXAKO TICKETA (salmenta zuzena) | <ul style="list-style-type: none"> • Produktuaren salmentako izena, eta haren sailkapen ekologikoa edo bilakaerakoa. |
| ENTREGA-OHARRA (urrutiko salmenta) | <ul style="list-style-type: none"> • eskabidea prestatzeaz arduratu den eragilearen identifikazioa; • eskabidea egin duen bezeroaren izena; • honako esaldia: “ENEKeko XXXX zenbakidun eragilea, ES-ECO-026-VAS agintaritzak kontrolatua”; XXXX da eragileak ENEK-en daukan erregistro-zenbakia, eta ES-ECO-026_VAS da ENEK-ek kontrol agintaritza gisa daukan UE kodea; • eskabidea prestatu den data; • entregatutako produktuen zerrenda haien kalifikazio ekologikoarekin edo bilakaerako kalifikazioarekin batera; argi eta garbi ezberdindu behar dira, hala badagokio, produktu ekologikoak eta ekologikoak ez direnak; • Produktu bakoitzari dagokion lote zenbakia, sarreren erregistroaren bitartez trazabilitatea jarraitu ahal izan dadin, hornitzaile ekologikoarengaino iritsi arte. |

Produktuaren kalifikazioa honela laburbil daiteke ticketetan eta albaranetan:

- EKO (edo BIO): produktu ekologikoetarako (biologikoak, organikoak);
- BIL: nekazaritza ekologikorako bilakaeran dauden produktuetarako;
- kualifikaziorik adierazten ez bada, produktua konbentzionala dela ulertuko da.

Entregatzeko albaranaren kasuan, batez ere eskabidean ekologikoak ez diren produktuak ere badaudenean, beharrezkoa izango da azalpen bat sartzea, kualifikazioen laburduren esanahia argitzeko; albaranaren oinean honakoa adieraz daiteke, esaterako: “EKO= produktu ekologikoa / BIL = nekazaritza ekologikorako bilakaeran dagoen produktua”.

Halaber, kutxa erregistratzailean produktuen izenak sartzan direnean, kontuz ibili beharko da produktu beraren kode ezberdinak sartzeko (adibidez, 17 = errege-sagarra EKO; 18 = errege-sagarra BIL; 19 = errege-sagarra).

3.8 Ziurtagiria agerian jartzea

Merkataritzako establezimenduan zein, kaleko salmentaren kasuan, azokako postuan, eragileek uneoro izan beharko dute erakusgai ENEKek emandako adostasun-ziurtagiria, jendeak ondo ikusteko moduan; ziurtagiri horretan ziurtatutako eta kontrolatutako jarduerak eta produktuak xehatzen dira.

3.9 Garbiketen eta izurrien eta karraskariaren kontrolen erregistroa

Eragileak garbiketako programa, eta izurriak eta karraskariak kontrolatzeko programa eduki behar dute. Berariazko erregistro batean erregistratu behar dira garbiketako eta izurriak kontrolatzeko jarduketak, nork, zer, zerekin, zela eta noiz adieraziz.

Eragileak, gainera, instalazioetan erabiltzen diren garbiketako produktuen eta izurriak eta karraskariak kontrolatzeko produktuen fitxa teknikoak eduki behar dituzte.

4 INSTALAZIO MISTOAK

4.1 Identifikazioa saltokian

Soilik produktu ekologikoak saltzen ez dituzten txikizkako komertzioen kasuan, argi eta garbi bereizi behar dira produktu ekologikoetarako erabilitako seinaleak (kartelak, errotuluak) produktu konbentzionalerako erabilitakoengandik, kontsumitzailea nahastu ez dadin. Seinale horiek produktu ekologikoak dauden zonan jarriko dira, edo produktu horiei bideratutako apaletan.

4.2 Elaborazioa eta zatikatzea

Produktu ekologikoak zein konbentzionalak dauden establezimendu mistoetan, produktuak elaboratzeko eta zatikatzeke fase anitzetan, produktu ekologikoak behar bezala identifikatu behar dira, produktu konbentzionalekin nahasteko arriskua saiheste aldera.

Instalazio misto batean produktuak elaboratzeko eta zatikatzeke erabiltzen diren ekipo guztiak (makinak, lanerako gainazalak, sukaldeko tresneria, labeak, xerra-makinak, etab.) produktu ekologikoentzako soilik erabili behar dira, eta behar bezala identifikatuta egon behar dira erabilera horretarako.

Ezinezkoa denean ekipoak produktu ekologikoetarako soilik erabiltzea, ekipook behar bezala kudeatu beharko dira kutsatzeak saihesteko helburuz, arriskuen azterketa batean oinarrituta garatutako laneko jarraibide batzuei jarraituz. Erabili aurretik ondo garbitu behar dira ekipoak, aurretik produktu konbentzionalekin egindako elaborazioetan geratu ahal izan den edozein arrastorekin kutsatzea saihesteko.

Kutsatzeko arriskua eta ustekabeen produktuak nahastea saihesteko hartutako neurriak indartu egin behar dira, produktu ekologikoetarako forma eta kolore ezberdinak erabilia. Adibidez:

- okindegietan, produktu ekologikoei forma ezberdina emanda;
- produktu ekologikoak elaboratzeko kolore ezberdineko sukaldeko tresneria erabilia;
- haragi ekologikoa kolore ezberdineko erretilutan ontziratuta;
- fruta eta barazki ekologikoen salmenta zatikatuan, apalak kolore bidez ezberdinduta;
- produktu ekologikoetarako kolore ezberdineko errotuluak erabilia.

4.3 Biltegitratzea

Instalazio mistoetan, produktu eta osagai ekologiko guztiak behar bezala identifikatuta egon behar dira, eta produktu konbentzionalengandik bereizita biltegitratu behar dira.

Ontziratutako eta etiketatutako produktu ekologikoen kasuan, ez dago horiek berariazko eremu batean biltegitratu beharrik. Solteko produktuak berariazko seinaleztatutako eremuetan biltegitratu behar dira, behar bezala identifikatuta.

5 ANTZEMANDAKO HUTSUNEA ZUZENTZEA

5.1 Ekintza zuzentzaileak

Auditoretzan ikusten bada ez dela araudia betetzen, **arau-hausteen akta** batean jasotzen da, eta hori konpontzeko neurriak idatziz proposatzea eta ezartzea eskatzen zaizu. Ezarrita dago proposatutako ekintzak martxan jartzeko daukazu epea, eta ezberdina izango da arau-haustearen larritasunaren arabera.

Arau-hauste arina **irregulartasuntzat** jotzen da. Arau-haustek produktuaren osotasun ekologikoari eragiten badiu, **Desadostasuntzat** jotzen da. Hala jotzen da hiru urteko epearen barruan berriro irregulartasun bera egitea ere. Oro har, desadostasuntzat jotzen dira ondorengoak:

- Jarduera gauzatzeko baimen ofizialik ez edukitzea.
- Eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duten erregistrorik ez edukitzea.
- Auditatutako erregistroan datu faltsuak agertzea.
- Eko ez dena, jakinaren gainean, produktu ekologikoen aipamenekin etiketatu izanaren ebidentziak.
- Ebaluazio-lanetan ez kolaboratzea edo lan horiek oztokatzea.

Edozein kasutan, beharrezkoa da **arau-haustea** aktan adierazitako gehieneko epearen barruan **konpontzea**. Horretarako, berriro gertatuko ez dela bermatzeko neurriak proposatu behar dira; proposamen horretan, gutxienez, ondorengo informazioa jaso behar da:

- Arrazoi azterketa.
- Eraginen balorazioa; eragindako produktuen prozesuak eta bolumenak.
- Arazoa konpontzeko edo berriro gertatzea saihesteko proposatutako ekintza, eta pertsona arduraduna(k).
- Arazoa konpondu izanaren edo neurriak ezarri izanaren ebidentziak.

ENEKeko auditoreak arau-haustek itxiztat jotzen dituen arte, ezingo da amaitutzat jo auditoretza, eta ez zaio espedientea **Ziurtagin-batzordeari** bidaliko. Aktan adierazitako epea amaitu bada (normalean, 10 egun baliodun), espedientea dagoenetan bidaliko zaio Ziurtagin-batzordeari, erabakia hark har dezan.

5.2 Arau-hausteen inguruko erabakiak

Antzemandako arau-haustea itxiztat jotzen bada, Ziurtagin-batzordeak inskripzioa eguneratzeko ebazpena eta adostasun-ziurtagiri berria – dagokion balio-epearekin – bidaltzen dizkio eragileari.

Arau-haustea itxiztat jotzen ez bada, Ziurtagin-batzordeak neurriak hartzea proposatuko du, besteak beste, ziurtagina behin-behingo indargabetzea edo behin betiko kentzea.


Kasu bietan, eragileari debekatu egingo zaio eragindako ekoizpenetan aipamen babestuak erabiltzea. Eskakizun hori beteko ez balitz, zehazpen-espedientea abiaraz liteke eta, horrekin batera, zigorrak ekonomikoak ezarri. Zehapenak administrazio-prozeduraren arabera eraenduko dira.

Eragileari egindako kontrolen emaitza, indarrean dagoen araudian oinarrituta.

Irregularitasunik edota desadostasunik antzematen ez bada.

Irregularitasunik baldin badaude

Desadostasunik baldin badaude



Ikuskatzaileak ekintza zuzentzaileak eskatuko ditu.

Eragileak arau-hausteak konpondu behar ditu, eta ekintza zuzentzaileen agiria bidali, proposatutako neurriak adieraziz eta arau-haustea konpondu dela erakusten duten ebidentziak azalduz. Agiri hori ikuskatzaileak baloratuko du.

Ziurtapen-batzordeak espedientea baloratzen du.

Dena ondo baldin badago.

Desadostasunik konpontzen ez badira

- Inskripzioa eguneratzeko ebazpena.
 - Adostasun-ziurtagiria
- Merkaturatzen jarraitu daiteke, logotipoa eta termino babestuak erabilia.

Ziurtapen-batzordeak proposatuko du:

- Produktuaren ziurtagiria aldi baterako, partzialki edo erabat indargabetzea.
- Ziurtagiria kentzea.
- Zigor ekonomikoa ezartzea.

Eragileari azken erabakiaren berri ematea.

Ziurtapen-batzordearen edo aldean ebaluazioa.

ENEKEN ziurtapen-jardueren inpartzialtasuna bermatzeko, aldizka, erabakiak aztertzen ditu batzordeak.

6 www.eneek.org WEBGUNEKO ZERBITZUAK ETA EGIN DITZAKEZUN TRAMITEAK

ENEKEN Erregistroan inskribatutako pertsoneri erabiltzaile-izena eta pasahitza ematen zaizkie, www.eneek.org webguneko eremu mugatura sartu ahal izateko. Horrela, inprimakiak eskura ditzakete, tramiteak egin, logotipoak deskargatu, etab.

ENEKEK **eragileen gida** bat dauka *on line*; gida horretan bilaketak egin daitezke, eta hainbat parametroren arabera iragaz daitezke bilaketok, hala nola, harremanetarako datuen, produktu moten eta merkaturatzeko moduen arabera.

Webgunearen beste helburu bat da kontsumitzaileentzat, oro har, informazioa eta baliabideak eskaintzea:

- ENEK eta haren jarduerak.
- ZIURTAPENA araudia, agiriak, etiketak, eragileen erregistroa.
- ALBISTEAK
- DIREKTORIOA ekoizleen eta kontsumitzaileen elkarteak, lotura interesgarriak, produktuen katalogo digitala, ohiko azokak.
- NEKAZARITZA EKOLOGIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA

7 BESTELAKO GAI INTERESGARRI BATZUK

7.1 Nola inskriba ditzaket jarduera edo establezimendu berriak?

Inskribatuta dauden eragileek ENEEken erregistratutako merkataritzako establezimendu kopurua zein ziurtatutako jarduerak gehitu ditzakete, hala nahi dutenean. Aldaketa hori eskatzeko, "Txikizkako komertzioak inskribatzeko/aldatzeko eskabidea" deritzon inprimakian xehatu beharko dira inskribatu nahi diren establezimenduak edo jarduera berriak. Eskabide hori ENEEken entregatu behar da (postaz ere bidal daiteke).

Handitzeetarako, inskripzioetarako adierazitako prozesu bera jarraitzen du ENEEkek.

7.2 Eta ziurtaginari uko egin nahi badiot?

Eragileak ENEEken baja eskatu nahi badu – dela produktu ekologikoen jarduera bertan behera utzi duelako, dela beste edozein arrazoiengatik – “Borondatezko bajaren jakinarazpena” inprimakia bete, eta ENEEken entregatu edo posta ziurtatu bidez bidali beharko du. Adostasun-ziurtagiria ere itzuli egin beharko du.

Gainera, ordaintzeke dauden ordainketa guztiak formalizatu beharko ditu, abian den urtean ordaintzeke dauden urteko kuotak barne, baja eskatzerako unean eragilearen instalazioetan oraindik kontrol jarduerarik egin ez bada izan ezik.

Tramite horiek egin ondoren, ENEEkek baja baieztatzen duen ebazpena bidaliko dio eragileari.

8 ERREKLAMAZIOAK ETA ERREKURTSOAK NOLA TRATATZEN DITUGUN

ENEEkek **erreklamazioak tratatzeko prozedura** bat dauka; horren bitartez ematen zaie erantzuna, eta haien jarraipena egiten da. Gainera, emandako ebazpenen aurrean eragileek jarritako **errekurtsoak ebazteko prozedura** bat dauka.

Informazio gehiago behar baduzu:

ENEEK, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura ekologikoaren Kontseilua.
Jauregibarria 4, 1.solairua. 48340 Amorebieta-Etxano.
Telf. 94 627 1594 garantia@eneek.org www.eneek.org